



Modu hezkidetzailean
lan egin nahi duten
hezitzaileentzako
orientabideak.

HezkiEragak





Hezki&Erak

Modu hezkidetzailan
lan egin nahi duten
hezitzaileentzako
orientabideak

ZER DA?

Esku artean duzun dokumentua, Sorginlore eta Ikertzek azken urteetan hezkidetzaren arloan gidatu dituzten prozesu desberdinen ondorioetako bat da.

Bertan hezkuntza formal eta ez formaleko hamaika eragileei (Berritzeguneak, unibertsitateak, gaztelekuetako hezitzaileak, ikastetxe eta lanbide heziketa zentroak, eragile feministak...) galdera hau luzatu diegu: **“Zer da modu hezkidetzaille batean lan egiteko, bai edo bai, kontuan izan behar duguna?”** eta erantzunak, jarraian jasotzen diren edukiak sortzeko oinarri izan dira.

ZERTARAKO?


*Indarrean dagoen marko juridikoa*¹ eta *II. hezkidetz plan*² jarraituz, gizarte eraldaketarantz eta hezkuntza feminista baterantz pausoak emateko.


¹ [Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Oorganikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko](#) / [Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena](#) / [Abenduaren 21eko 17/2023 LEGEA, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena](#)

² [EAE-ko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetz Plan, Berdintasunaren eta Tratu Onen Bidean 2019-2023](#)

NORENTZAT?

Gazteekin hezkuntza formal edo ez formalean diharduten hezitzaileentzat.





ZER TOPATUKO DUZU?

Lan hezkidetzaille bat egiteko kontuan izatea komeni diren gaiak topatuko dituzu hemen ohar, gako edo galdera sorta batez lagunduak helburua izanik, horien inguruan pentsatu, egunerokotasunean buruan izan eta pixkanaka aplikatzen joatea.

- Ø. **Hasi aurretik:** Nola ulertzen dugu **hezkidetza** eta zeharkakoak (edo beti presente izan behar ditugunak).
- 1. **Hezitzaileak** edo **hezitzaile taldeak** kontuan hartzekoak
 - Kontzientzia adi!
 - Prestakuntzaren beharra
 - Eredugarritasunak planteatzen dituen erronkak
 - Elkarlanerako prest!
- 2. Erabiltzen ditugun **materialak** hezkidetzailleak dira?
- 3. **Espazioak** aztertzen
- 4. Zer **erreferente** ekartzen ditugu?
- 5. Nolakoa da **komunikatzeko** dugun modua?
- 6. **Ospakizunak** birpentsatzen



HASI AURRETIK:

Nola ulertzen dugu hezkidetza eta zeharkakoak

(edo beti presente izan behar ditugunak).

“Hezkidetza hezkuntza prozesu integrala da, non pertsona guztien erabateko garapena eta berdintasuna sustatzen den. Bertan, desberdinkeriak eta diskriminazio mekanismoak detektatzen dira, eraldatzeko tresnak inplementatzen dira, eta aniztasun afektibo sexuala eta genero adierazpen askea bultzatzen da. Hezkuntza horrek ikasleak prestatzen ditu gizarte berdinzale eta aniztasunarekin adeitsuagoa eraiki dezaten”

(Barquín, Alberdi-Ruiz de Alegría, Baranguan, 2021).

“Sorginlorearen ustez, ikuspegi feminista interseksional¹ batetik berdintasuna aldarrikatzen duen hezkuntza da hezkidetza, bai hezkuntza formalean — sozializazioaren, prestakuntzaren eta ikaskuntzaren espazio giltzarria—, bai hezkuntza ez-formalean eta hezkuntza informalearen espazioetan.

Hezkidetzak, modu horretan ulertuta, honakoak hartzen ditu barne:

- *Genero-desberdintasunen ondorioz sortzen diren arrakalak (rolekin, espazioekin, boterearekin, balioarekin eta bizi-proiektuekin lotuta) zalantzan jartzea eta horien gaineko kontzientzia handiagoa izatea, irakurketa kritiko lokal-global batetik abiatuta.*
- *Jarrera-aldaketa batera iristen laguntzea, askatasun, ahalduntze eta sororitate handiagoa izateko eta, hala, zisheteronormatiboak² diren eta naturalizatuta dauden jarrerak gainditzeko.*

1 Interseksionalitatea: “...zapalkuntza, diskriminazio edo desabantaila mota askoren arteko elkarrekintza eta gainjartzeari buruzko kontzeptua da, hala nola generoa, arraza, gizarte-klasea, sexu-orientazioa, adina, ezgaitasuna, besteak beste. Kimberlé Crenshaw akademiko afroamerikarrak sortu zuen 1980ko hamarkadan, Estatu Batuetako emakume beltzen esperientziak azaltzeko. Emakume horiek, generoagatik ez ezik, arrazagatik pairatzen zituzten diskriminazioei aurre egin behar zieten, eta haien esperientziak ezin ziren zapalkuntza-ardatz bakar baten bidez guztiz ulertu.

Interseksionalitateak onartzen du zapalkuntza mota horiek ez direla soilik batera existitzen, baizik eta elkarrekin uztartu eta indartu egiten direla, eta diskriminazio/desabantaila-esperientzia bakarrak eragiten dituztela gizartean egoera marginal ugari pairatzen dituzten pertsonengan. Ikuspegi horrek azpimarratzen du, desberdintasun sozialak aztertu eta jorratzerakoan, garrantzitsua dela identitateen eta esperientzien interseksioa aintzat hartzea.”

Crenshaw, K. (1989). Demarginalizing the intersection of race and sex: A black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics. University of Chicago Legal Forum, 1989 (08), 139-167.

2 Zisheteronormatiboa: Mandatu sozial honen arabera, ondorengoak dira bete beharreko arauak:

- **Zis:** Aluarekin jaio eta emakume bezala autoidentifikatu edo zakilarekin jaio eta gizon bezala autoidentifikatu.
- **Hetero:** Emakume bezala identifikatu eta gizonak bezala identifikatzen diren pertsonetikiko desira erromantiko, fisiko eta afektiboa sentitzea, eta alderantziz.
- **Normatiboa:** Sexu-genero sistemak inposatutako rol edo arauak bete behar dira (femenino-maskulino).



- *Imajinario, narratiba, botere, lidergo, bizitza eta elkarbizitza emantzipatzaile, berdinzale, solidario eta indarkeriarik gabekoak sortzeko, barneratzeko, bizitzeko eta hedatzeko parte-hartze aktiboa, indibiduala eta kolektiboa.*
- *Pedagogia feministetan oinarritzea eta, horiek aztertzean eta praktikara eramatean, interseksionalitatearen, herri-hezkuntza feministaren, kulturartekotasunaren, transfeminismoaren³ eta feminismo dekolonialaren⁴ ekarpenak txertatzea.”*

Sorginlore, 2024

Aipu hauek, hezkidetzaren kontzeptu zabalak barnebiltzen duen guztiaren adibide garbia dira. Gaia-ri erpin desberdinetatik eutsi diezaiokegu beraz, baina lanketa egiteko estrategiak pedagogia feministetan oinarritua behar du egon eta hauek, besteak beste, beraiekin dakarte hezitzaileok, gatazken kudeaketetatik, zaintzatik (kontzeptuaren zentzu zabalenean, gure buruekiko, besteekiko, inguruarekiko...) eta plazeretik lan egiten ahalegintzea. Horiez gain gorputza, interseksionalitatea eta ez bitartasuna bezalako aldagaiak ahal den guztietan presente izatea garrantzitsua dela uste dugu eta Mireia Delgado pedagogo feministak dioen moduan, une oro, gure egiteko moduetan txertatzen saiatzea: *“Gauzak horrela, estrategia aldatu beharra dago. Klabea ZIRIMIRIA izan daiteke. Bai, eskolako aspektu oro, zirimiria balitz, feminismoaz bustitzea. Gutxinaka-gutxinaka. Kasik nabaritu gabe. Bustitzen egongo ez bagina bezala. Baina benetan etengabe eta etenik barik; tiki-taka, tiki-taka... Dena blai egon arte...”* Delgado, M. (2023). *Hezkidetza eta Pedagogia Feministen II Kongresua. ‘Hetero Araua Plazerez Lehertu!’*

3 Transfeminismoa: Transfeminismoa korrante feminista bat da, sistema zsheteronormatiboa zalantzan jartzea barne hartzen duena, eta zapalkuntza mota desberdinen azketerketa interseksionalean oinarritzen da.

4 Feminismo dekoloniala: “...feminismoaren barruko korrantea da, feminismoaren eta kolonialismoaren eta inperialismoaren aurkako borrokaren arteko interseksioan oinarritzen dena. Kolonialismoak inposatu dituen eta emakumeen zapalkuntza betikotzen jarraitzen duten botere- eta menderatze-egiturei aurre egin nahi die, bereziki komunitate kolonizatu edo baztertuetakoei. Ikuspegi horrek onartzen du emakumeen esperientziak eta borrokak ez direla homogeenak, eta testuinguru historiko, kultural eta politiko espezifikoak kontuan hartu behar direla genero-desberdintasunak eraginkortasunez ulertu eta aurre egiteko.” González, J., De León, E., & Carrillo, H. (2017). *Feminismos Descoloniales*. *Convergencia Revista de Ciencias Sociales*, 24(75), 143-169.

1.

HEZITZAILEAK EDO HEZITZAILE TALDEAK KONTUAN HARTZEKOAK.



KONTZIENTZIA ADI!


Guztiok bizi gara gizarte kapitalista eta matxista baten baitan eta oso zaila da helarazten zaizkigun aginduei muzin egin eta mota honetako jarrerarik ez izatea. Gure hezitzaile lana ahalik eta hoberen burutzeko, inguratzen gaituen testuinguruaren behaketa eta azterketa egin eta kontzientzia izatea garrantzitsua izango da.

Azken finean, gauzei balioa askotan, bizi garen kulturaren indarra duten sinesmenen arabera ematen diegu:

Pentsatu zure egunerokotasunean estereotipoek eraginda dituzun jarrera matxista edo ez parekideetan.

Lan jardunera mugatuz orain, askotan, gazteengandik espero duguna haien generoarengatik baldintzatua egoten da.

Bilatu zuri dagozkizun eta baieztapena frogatzen duten bi egoera (adibidez, a priori, neskak txukunagoak eta arduratsuagoak izatea espero izaten dut).



PRESTAKUNTZA ETA GOGOETAREN BEHARRA

“Izendatzeko boterea, hau da, hitzak sortzeko eta definitzeko, hizkuntza jakin baten gramatika-arauak sortzeko eta definitzeko, gauzei identitatea emateko, horiek gogora ekarriz eta erreferentzia-puntu gisa ezarriz edo batzuk besteekin lotuz, kultura jakin bat eratzeko ahalmena da, existitzen dena eta existitzen ez dena, naturalizat jotzen dena eta ez dena, ona eta txarra ezartzeko ahalmena da. Hitzaren boterea gizarte jakin bat gidatuko duten balioak aukeratzeko boterea da, are gehiago, errealitate jakin bat sortzeko boterea da”.

JASS – Justiziaren aliatuak: transgresio feministaren hiztegia

Gogoetarako galderak

- 1** Komunitatean, hezitzaileen eta gazteen artean, berdin onartzen, irudikatzen eta tratatzen al ditugu genero-adierazpen guztiak?
- 2** Generoa, eraikuntza soziala da. Genero identitatea da, pertsonen haien burua nola identifikatzen duten: gizonezkoa, emakumezkoa, ez bitarra... Zergatik dugu beste pertsonen generoa jakiteko beharra?
- 3** Hezitzaileengandik, gazteengandik, garbitzaileengandik, teknikoengandik, familiengandik espero duguna, haien generoaren baitan dago?
- 4** Zerbait egiten dugu genero adierazpenei buruzko estereotipoak hausteko? Kontuan izaten ditugu aukeraketak egiterakoan (koloreak, gona-galtza, makillajea, kirol-arropa, orrazkera...)?
- 5** Zer irudi ikusten eta sortzen ditugu: posterrak, aurkezpenak, material-didaktikoa, pertsona erreferenteak...
 - Nor agertzen da? Neskak, mutilak, ez bitarrak...
 - Nola agertzen dira? Nork egiten du zer? Nork norekin ditu harremanak? Zein generok du rol nagusia eta/edo aktiboa? Genero-rolak errepikatzen dira edo izateko eta egiteko modu desberdinak aztertzen eta ikusarazten ditugu?
 - Herri / hiriko aniztasuna islatzen al da jatorriari, kulturei, gorputzei, neurriei, adierazpenei, adinei, sexu- eta genero-identitateei eta abarrei dagokienez?
 - Zergatik da ia hezkuntza-komunitate osoa zakila/barrabilak marrazteko gai eta ez bulba edo klitoria?
- 6** Jolasek, kirolek, ekintzek generoa al dute? Guztiei balio berdina ematen diegu edo gauza batzuk besteek baino balio handiagoa dute? Balio hori generoari lotuta dago?
- 7** Gazteek mugimendu eta ahotsaren bidez adierazten dituzten beharrak ezagutzen ditugu? Eta horretarako aukera eta espazioa ematen diegu?

Prestakuntza behar dugu?

Pedagogia feministak

Gure lan egiteko moduak (gure NOLAK) feministak dira? Lanketa egiten dugun eremuaren errealitateari edo testuinguruari begiratu diogu bertan ematen diren genero, arraza, sexu, klase... botere dinamiken arabera? Gure gorputzek eta "bizitza pertsonalek" eragiten dituzten diskriminazioak eta bazterketak identifikatzeko gai gara? Gure lanketaren estrategia hau guztia kontuan hartuz antolatzen dugu? Zaintza presente daukagu? Ahalduntze feminista eta ahizpatasuna sustatzen dugu? Pausoak pixkanaka ematen goaz eta ekintza berdinzaleak partekatu eta ospatzen ditugu?

Tratu onak

Harreman osasuntsu bat zer den argi daukagu? Ze estrategia, lanketa edo eredu erabiltzen dugu norbanako eta erakunde modura gazteen artean horiek sustatzeko? Genero ikuspegial kontuan izanik, non ipintzen dugu arreta? Generoari begiratzuz, gazte guztiengandik berdina espero dugu? Gatazken kudeaketa eta prozesuaren garrantzia, birkokapena eta horrelako egoerei aurre egitearen abesrastasuna bezalako gaiak eta tresnak lantzen ditugu? Tratu onak gorputz guztietara iristen direla pentsatzen dugu? Ez bitar, neska eta mutil era guztiak eroso sentitzeko estrategiak pentsatu eta erabiltzen ditugu?

1 Errealitate soziala interpretatzeko erreferentzia markoa: kontuan hartzen du, betiere kasuan kasuko testuinguruan, zer ondorio eta jatorri duten emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunek. Helburua litzateke pertsonen egoera eta beharrak kontuan hartzea eta horretarako, haien generoa kontuan hartzen da ezberdintasunekin bukatzeko.

Sexu Hezkuntza Integrala

Zer den argi daukagu? Gure lanean txertatzen dugu? Estereotipo eta rolek bertan duten eragina ikusten dugu? Non kokatzen ditugu desirak eta plazera? Autoezagutzari indarra ematen diogu? Emozioen kudeaketa nola jorratzen dugu? Gorputzaren ezagutza nola lantzen dugu? Zein dira ematen ditugun gorputz ereduak? Sustatzen dugu guztion gorputzak onartzea eta maitatzea? Gardentasuna eta kontsentimetuaren ulerpenari eta kokapenari buruz hitz egiten dugu? Gai gara ditugun mugak eta desadostasunak plazaratzeko? Guztion mugek, balore edo botere berdina dute?

Indarkeria matxistak

Indarkeria guztiak (hitzezkoak, ez hitzezkoak, gorputzezkoak, kolektiboa...) identifikatzeko gai gara? Ze tresna ditugu lanketa egiteko (protokoloak, planak, komunikazio ez bortitza, ahal duguna edo dakiguna...)? Ezagutzen eta ulertzen ditugu? Nola lantzen dugu gaia taldean, modu kolektiboan edo erakunde gisa? Nola identifikatu eta kudeatzen ditugu fobiak (lodi-fobia, LGTBI+fobia) eta arrazakeri jarrerak?


EREDUGARRITASUNAK PLANTEATZEN DITUEN ERRONKAK

Jakina da pertsonok azkarrago barneratzen ditugula ikusten eta bizitzen ditugun gauzak esaten zaizkigunak baino. Hemendik gazteentzat eredugarri izatearen eta haiei eskatzen dieguna guk betetzearen garrantzia. Hona hemen kontuan hartzea interesgarria izan daitekeen gaien zerrenda.

Astero arreta puntu batetan jartzeko gonbitea luzatzen dizugu.



GAZTEKIN ZUZENEAN LANKETA EGITERAKOAN ERRONKAK	DATA	OHARRAK
Ni eta nire ingurua pentsamendu kritikoz aztertzen ahalegindu.		
Ikasteko eta gauza berriak ezagutzeko prestutasuna.		
Nire ingurua eta ingurukoak zaintzen ahalegindu. Harremanetan adibidez, ulermenez, malgutasunez eta enpatiaz jokatu, modu aktibo batean entzuten...		
Lankideekin eta inguruko helduekin ditudan harremanak behatu eta boterea nola banatu eta antolatzen den aztertu egoera ez justuak ekiditeko.		
Emozioen kudeaketari arreta ipini, nireei eta baita lan egiten dutan taldeko partaideenei ere.		
Partaide guztiok eroso eta seguru sentituko garen gunea edo gela eraiki / pentsatu.		
Taldeko kide guztien parte hartzea bermatzeko aukera eta modu desberdinak eskaintzeari arreta jarri.		
Komunikazio feminista eta parekidea erabiltzen ahalegindu; hizkuntza eta gorputzaren bidez adierazten dudana zainduz, irudiak hautatzerakoan...		
Gazteei eskatzen diedan hori betetzen ahalegindu.		



ELKARLANERAKO PREST!

Goiko taulako azken puntu horrekin lotura eginez, askotan, gazteen artean talde lana sustatu nahiean ibiltzen gara, izaki sozialak garen heinean, elkarrekin, bakarka baina aberatsagoa izango delakoan. Horrela da ere hezkidetza eta pedagogia feministen kasuan; beste batzuekin batera arituz, bidea xamurragoa eta emaitza oparagoak izaten dira orokorrean.

Hemen proposatzen dizkizugu 3 saretze modu desberdin:

SINERGIAK

Momentu zehatzetan, indarrak batu ditzakegu helburu amankomun baten alde.

ELKARLANAK

Aurrekoa baina askoz zabalagoa, eskola edo hezkuntza gunearen, familia edo tutoreen, gazteen eta komunitatearen arteko harremana eta lana izan daiteke, adibidez.

ALIATUAK

Balio batzuekiko ilusioa, gogoia eta grina partekatzen dira eta horiek elkarren artean elikatzen dira.

Zerrenda osatzeko saretze modu gehiago bururatzen zaizkizu?

Noiz lan egiten duzu zuk horrela? Adibideak ipini ditzakezu?

Eta bestela.... modu horietakoren bat abiatzeko pertsonak/indarrak eta helburuak bururatzen zaizkizu?

MODUAK	ZERTARAKO?	NOREKIN?	ZER GEHITZEN DUT NIK?	ZEIN DA NIRE ARDURA?
SINERGIAK				
ELKARLANAK				
ALIATUAK				
...				


2.

ERABILTZEN DITUGUN MATERIALAK HEZKIDETZAILEAK DIRA?

Gure eskuetan eta inguruan dauden materialak (abestiak, liburuak, fitxak, erronkak, erabiltzen ditugun adibideak, bideoak, irudiak, horma-irudiak, eskutitzak, aktak, etxeko lanak...) hezkidetzaileak izan daitezen, genero ikuspegia zorroztu eta aktibatu behar dugu.

Ondorengoa izan daiteke ibilbide posible bat:

- 1 Aztertu erabiltzen ditugun materialetako protagonistak eta pertsonaiak; ze rol / eginkizun betetzen dituzten eta ze botere, balio ematen zaien.
- 2 Sustatu material guztien erabilpena (mozorroak, jokoak...) genero markarik jarri gabe.
- 3 Feministak diren materialak identifikatu.
- 4 Lan taldean kodigo / keinu batzuk adostu (ez feminista X, feminista X, ez daukat argi X...) ditugun kezkak plazaratu eta sortutako gogoeta eta materialak partekatzeko.



Gogoratu!!
Berdintasuna, zirimiria bezala,
egun zehatzetan lantzeaz gain (M8, M21, M17, E28, A25...),
egunerokotasunean jorratu beharreko gaia da.

3.

ESPAZIOAK AZTERTZEN

Gazteekin jardura burutzen dugun espazioa ziurra izan dadin...

- Partaideek nola erabiltzen dute eremua? Lasai eta eroso ibili daitezke leku guztietatik? Espazio fisikoaren erabilera orekatua da orokorrean?
- Taldean banatuko diren rolak (ordezkari, arduradun, behatzaile, idazkari...) guztiek beteko dituzte modu erosoan?
- Mugak eta arauak argi daude edo elkarrekin erabaki dira? Parte hartzaileen askatasuna bermatzen dute edo horrela ez bada, hau adierazteko beste bide batzuk dituzte?
- Indarkeriak identifikatu eta izendatzen ditugu?
- Gela edo aretoan erabiltzeko ditugun materialak, guztiek arazo gabe hartu ditzakete?
- Espazioaren disposizioari begiratu diogu? Antolaketa integratzailea izan dadin pentsatu dugu?
- Gatazkak audenean behar den denbora ematen diegu?
- Espazio kritikoen azterketa egin dugu? Gazteak (bakarrik, taldean....) non daude edo ez daude eroso? Zergatik?

Espazioak mailakatzeko eta non kokatuak gauden jakiteko eskema posible bat ondorengoa izan daiteke:



Gustora nagoen espazioa.

- a)** Taldeko kide sentitzen naiz.
- b)** Epaitzen da eta honen kontzientzia daukat.



Konfiantza espazioa.

- a)** Entzuna sentitzen naiz eta komunikazioa dago.
- b)** Lasai hitz egin eta iritzia eman dezaket.
- c)** Mugak argi daude eta ez da epaitzen.
- d)** Gardentasuna da nagusi.
- e)** (Auto)ezagutza dago.



Espazio seguruak.

- a)** Nire kezkak eta zaurgarritasunak/ahultasunak partekatzeko lekua dudala sentitzen dut.
- b)** Ulertua sentitzen naiz.
- c)** Txorakeriak egiteko edo ez etikoa izan arren bururatzen zaidana partekatzeko aukera dudala sentitzen dut.
- d)** Kideen arteko interdependentzia dago: autonomia + konexioa + ardura + poz partekatua.
- e)** Ahizpatasuna dago: zurekin nago + taldea gara

4.

**ZER ERREFERENTE
EKARTZEN DITUGU?**

Zisheteronormatibitatearen eredu jarraitzen ez duten bizitzeko eta izateko modu asko daudela (bitartasunetik -gizon/emakume, neska/mutil-ateratzen direnak, desira sexual anitzak dituztenak...) ulertu eta barneratzeko erreferenteak izatea guztiz beharrezkoa da.

Gogoratu! Ikusten ez dena ez da existitzen.

NOLA EGIN DEZAKEGU?

1. Lan egiten dugun tokira puntualki/kanpotik etortzen diren pertsonen profil anitzak bilatu edo, behin norbait buruan izanda, ikasgelara ekartzeko testuinguru aproposa sortu.

Egoera horiek arretaz eta zaintzaz prestatuko ditugu, modu naturalean, eta ez dugu nabarmenduko zerbaite berezia direnik..

2. Ipintzen ditugun ikus-entzunezkoetan, adibideetan, ariketetan, asmatzen ditugun jolasetan, egin behar diren elkarrizketetan... Estereotipoak apurtzen eta beste eredu batzuk txertatzen eta normalizatzen ahalegindu

NORBERAK GOGOETA EGITEKO:

Pertsona bat ikusten duzunean, jakin behar duzu zein sexu eta genero duen? Neska, mutil ala ez bitarra den? Ze informazio ematen dizu honek? Zertarako da baliagarria? Informazio hori pertsonarena da edo esleitu diozun generoaren estereotipoari edo rolari buruzkoa da?


3. Hezkuntzak eraginda bitartasunari buruz dugun eskema hertsia zabaltzeko, emakume-gizon, femenino-maskulinoaz gain beste aukera batzuk daudela presente izan.



Berdina gertatzen zaizu bere adierazpenarekin? Pertsona bat janzten edo mugitzen denaren arabera uste duzu badakizula nor gustuko duen? Heterossexuala, homossexuala, bisexuala, pansexuala edo asexuala den?

5.

NOLAKOA DA KOMUNIKATZEKO DUGUN MODUA?




Garrantzitsua da dioguna bat etortzea egiten dugunarekin, beraz, erabiltzen dugun komunikazioa feminista izate aldera ondorengoak behatu ditzakegu:

	DATA	NIREA?	ESKOLA / ERAKUNDEARENA?	OHARRAK
Erabiltzen dugun ahozko eta gorputzeko (hitzezkoa eta hitzik gabekoa) hizkuntza parekidea da?				
Zer hitz erabiltzen ditugu zerbait positiboa eta zerbait negatiboa adierazteko? Generoaren arabera, konnotazio sexuala eta/edo balio ezberdina dute?				
Egunerokotasunean hitz egiteko modu edo tonu asko daude. Zeintzuk onartzen ditugu eta zeintzuk ez? Generoaren arabera balio desberdina ematen diegu, hau da, modu berean onartu edo baztertzen dugu garrasi bat neska, mutil edo pertsona ez bitar batengandik badator?				
Erabiltzen dugun idatzizko hizkuntza parekidea da? Zer sistema erabiltzen dugu hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak islatuta eta parte direla sentitzeko?				
Erabiltzen ditugun irudiak estereotipatuak dira? Zure herriko biztanleen aniztasuna irudikatzen dute?				
Zer da aipatzen ez dugun hori? Zein dira gure tabuak?				
Zein isiltasun mota daude gure hezkuntza komunitatean? Enbarazu egiten digute? Mutilen, nesken eta pertsona ez bitarren isiltasunek pisu bera dute? Ezer edo gutxi esaten duenak zergatik egiten du? Galdetzen diogu? Libre edo seguru sentitzen da iritzia emateko edo zer gertatzen zaion kontatzeko?				

6.

OSPA KIZUNAK BIRPENTSATZEN

Ospakizunak hezkidetzak eta pedagogia feministen lanketa egiteko eremu bikaina izan daitezke; plazeretik, ondo pasatzetik, umore onetik, ekintzatik eta mugimendutik askoz errazago eta modu positiboagoan iritsiko da gure mezua dispozioa bera ere hobe izango delako. Lanbide eta eragile desberdinen arteko elkarlana sustatzeko edo martxan jartzeko ere esparru ezin hobe izan daitezke.



Ondorengo ariketa egitea proposatzen dizugu:


Zure jarduna burutzen duzun eremuan egiten diren ospakizunen zerrenda osatu eta bat aukeratu genero begiradaz aztertzeko:

- Gabonak
- Danborrada
- Inauteriak
- Urtebetetzeak
- Euskararen eguna
- ...

Zer bazterketa edo diskriminazio egoera ematen dira ospakizun horren harira (antolaketan, jardura gauzatzerakoan...)?

Partaideek dituzten ardurak, eginkizunak eta adierazpenak genero rol tradizionalen arabera dira? Identifikatu egoera horiek, zerrendatu abantaila eta desabantailak, landu eta bilatu aukera berri edo desberdinak.

Adibidez: Inauterietan, gizonezkoak askotan, emakume hipersexualizatueta janzen dira. Zergatik sentitzen dira libre eta onartuak hau egiteko? Zer behar eta nahi daude hor atzean?



Zer bururatzen zaizu sexu-genero sistematik at dauden gazteen kultura, ohitura eta zaletasun desberdinak bisibilizatzeko? Eta bideaz gozatu (disfrutatu) eta goxatzeko (mimatze)ko?

The background is a solid reddish-orange color. It features several stylized white line drawings: rain falling in the upper left, a cloud with raindrops in the upper right, a cloud with a lightning bolt in the lower left, and a speech bubble containing three hearts in the lower right. A dashed arrow curves from the top left towards the center, and a solid arrow curves from the bottom left towards the center.

HezkiErak